



Usurbilgo Udala

Esp.zkia: ID.05 / 2018 - 0325

ALKATEAREN DEKRETUA

XABIER ARREGI IPARRAGIRRE Usurbilgo Udaleko ALKATEAK, Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 2. Xedapen Gehigarriaren 1. puntuak xedatutakoaren arabera, honako hau

IKUSIRIK

Kontratuaren gaia eta helburua: Aginako jubilatuen egoitzako tabernaren eta bertan dauden elementu eta instalazioen kudeaketa

Unitate sustatzailea: Ongizate saila

Kontratu mota: Zerbitzu Administrazio kontratu berezia.

Prozedurari dagokionez

Espediente-mota: ohiko tramitazioa du.

Esleipena egiteko bidea eta modua: Prozedura ireki bidez.

Baldintza Orriak: Espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak doaz.

Araudi aplikagarria

1.- azaroaren 9ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta urriaren 12ko 1098/2001 Erregelamendua.

2.- Administrazio baldintza zehatzen orriak.

Txostenak

- Teknikariaren memoria
- Idazkariordearen lege txostena.
- Kontuhartzailearen txostena

Kontratua esleitzeko eskuduntza

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 2. Xedapen Gehigarriaren 1. eta Usurbilgo Udalbatza Plenoak, behin betikoz onartua duen Usurbilgo Udaleko Arautegi



Usurbilgo Udala

Organikoaren arabera, kontratu hau esleitzeko eskuduntza Alkate-Lehendakariarena da.

Eta aipatutako guztia ikusirik honako hau,

ERABAKI DUT

LEHENA.- Prozedura ireki bidez, AGINAKO JUBILATUEN EGOITZAKO TABERNAREN ERABILPENA ETA KUDEAKETARAKO ZERBITZU KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIA kontratatzeke espedientea onartzea

BIGARRENA.- Aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespena ematea.

HIRUGARRENA.- Lizitazioa udaleko kontratatzaile profilean argitaratzea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

- Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeke errekurtsua aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Alkatetzaren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

- Bestela, erabaki hau berraztertzeke eskatu ordez, edo berraztertzeke errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsua aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berriazko araudiaren arabera presuntziorako ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena Alkateak, eta nik, Idazkari orde naizen honek, ziurtatua. Usurbilen,

ALKATEA
Xabier Arregi Iparragirre

Nire aurrean
IDAZKARIAORDEA
Olatz De Miguel Arnaiz